

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

244n. zenbakia
urrilla 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



AMETZOLA'KO BARATZA

ZELAIK
ZUGATZAK
IBILBIDEAK
JATETXEAK

BILBAO AURRERA DOA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

LE.

U

3

1999-2000 IKASTURTEA

OGEITAMABIGARRENA
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 19.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22
BILBAO

32² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 19.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

Bilbao Bizkaia Kutxa

URAREN EGOEREA TA ETORKIZUNA

Gure mundu onetan biztanleak ugaritu egiten dira eta ugaritze orrek arazo handiak eta asko ekarri daikez etorkizunaren barruan. Gaur alegin handiak egiten dira ugaritze ori urritzeko, ez guztiak bidezkoak, baiña alan eta guzti be lurra biztanlez geroago ta beteago egiten jaku.

Eta uraren arazora begiratu ezkerro, eta auxe da gaur aztertu nai doguna, beste eragikin edo faktore bat sartzen jaku or: Aurrerapena. Guk erri guztiak aurreratzea gura dogu eta orretarako egiten doguz alegiñak, baiña erri aurreratuak, gaur geuk, asko ur geiago bear dabe eta erabilten dabe.

* *

Garbi-laguntzak eta ura eroaten ez ba'jakez, izurriak eta askotariko gaisoak zabalduko dira. Kalkuta'n, esaterako, %70 bizi dira egoera larri orretan: ume asko eta asko ilten dira. Ura bear dan lez banatuko ba'litz, berazkoagaz urteko 200 milloi gitxiago ilgo litzakez, munduan.

Gaur be ur-saltzailleak ba-dabiltz ura saltzen, baiña uri-ko ura baiño amar bidar geiago kentzen dautse egarri diran gizajoai. Eta saltzailleak geroago ta aberatsago egiten dira laterri-arteko maillan multinazionalak euren artean osotuta. Emendik urrean, Bartzelona'n daukagu olako alkarte bat erdi-ugarte guztirako eta 1996n urtean 14.000 milloi pezetako irabazi garbiak lortu dauz.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Gaurko gure munduan bi milla milloi dira ura urri daukenak eta ura bear dan lez banatzeko 84 billoi pezeta bear-ko litzkeez eta ori laterrientzat dirutza ikaragarria dan lez, beste urtenbide bat aurkitu dabe: Ura salgai ipiñi eta ur-saltzailleak laterri-arteko bazkunak, multinazionalak, izan dai-tezela. Orra or barrero be txiroentzat arazoa! Ura erosteko dirurik ez dabe eukiko!

Gaurkoz ura egon ba-dago, 40.000 km.3 daukaguz eta erabilten dan ura ez dira ortik %10 baiño. Urterik urtera geiago erabilten da, urteko %3 ur geiago erabilten dogu. Bide oneri jarraituz 2.025n urtean asiko litzake arazoa, urritasuna: Biztanleak orduan 8.000 milloi izango dira, gaur baiño bi milla milloi geiago, eta lureko urretza osoa, gaurkoa bera.

* *

Uri handiak geroago ta aundiago egiten jakuz. Datorren urtean munduan 23 izango dira 10 millotik gora biztanle eukiko dabezenak, geienak mundu atzeratuan, Irugarren Munduan. Eta uri oneitan biztanlerik geienak urialboetan bizi izango dira, ezelako erri-laguntza barik.

Nondik ekarri orrenbeste biztalerentzat ura? Zelan ipiñi urbideak eta ur loi-bideak? Mexiko'k 180 km'ko urbi-dea egin dau ura ekarteko.

Beste arazo bat ura banatzeak erri-artean sortuko dauzan asarreak eta gudak izango dira. Emendik urrean be zerbait sortu da ur-aldatzeak edo "trasbaseak" dirala-ta, Afrika'n 18 lekutan dagoz arazo larriak, Jordan eta Eufrates ibaien inguruan be bai, Ameriketari Paraná eta La Plata ibaien inguruan bardin, eta Ganges ibai aundia dala-ta India ta Pakistan'en artean larri dabiltz.

Gure Euskalerriari begiratu ezkerro, alde bi daukaguz oso ezbaridiñak: Urak Lur-arte itxasora botaten dauzana eta Kantauri itxasora botaten dauzana. Lenengo aldean Ebro edo Ibairu erreka ederra daukagu eta ureztatzeak be egiten dira baina Ebro ez da geure-geurea. Eta bigarren alde urtsua da eta errekek txikiak dira.

Urte batzuk dirala sortu zan arazoa Araba'ren eta Bizkaia'ren artean Zadorra'ko urak dirala-ta, baiña etorkizunari begira ez da ikusten larrialdiaren arazorik etorri leitenenik. Orretan zorionekoak garala eta gure aurretikoak lurralde on bat aukeratu ebela uste dogu.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

UESKA

IA-IA ATZO ARTEKO GURE URI EUSKALDUN AUNDIA.

(Nere adiskide Kareaga'tar Gotzon Markiña'ko Alkate Jaun berriari)

(Idatz-lan au Iruña'ko "Diario De Navarra"n, argitaratu-berria da. Orregaitik dator Naparroa'ko Euskeraz. Baiña Bizkaitarrek ez dabe, bera ulertzeko, zailtasunarik izango).

Joan dan astean, irakurle adiskideok oroitu duzuten bezala, gure Errege izendako III Santxo "Nagusiak" Aragoi Euskal-erititik betirako nola moztu zigan azaltzerakoan, Ueska uri bikañaren EUSKALDUNTASUNAZ oroitu nintzen, eta gaurko ariketaren gala Ueska Uriaren Euskalduntasun ori izengo nuela itz-eman nizuen.

Izanere, andik, Ueska'tik, dokumentu zar batzuekin etorria bait nauzute: amalaugarren, amabosgarren, amaseigarren eta amazpi- garren mendeetako dokumentuekin, ainzuzen: mende oietan Ueska'n Euskeraz itzegiten zela, ziurki egizatzen diguten dokumentue- kin!

Ba, dokumentu guzti oien artetik, amaseigarren mendeko bat aukeratu dut idazlan ontarako, eta ori da gaur emen agertu nai nizue- kena, bera bait dugu denetan borobillena, eta, orregatik, orain, gogo atsegiñez aztertzen ari naizena.

Nik ekarritako dokumentu oiek denak, latinez dute sarrera, orduan oraindik latina bait zen izkuntza txukuna.

Ona gure onen sarrera: "OSCAE IN DIE XXV APRILIS ANNO MDLXI": "Ueska'n, 1961'ko Jorriaillaren 25'ean".

Nongotasuna ta noizkotasuna orrela eman ondorean, dokumentu orrek bere zergaitia azalduko digu: "LA ADMISION DE NUEVOS CONFRADES CORREDORES".

Artekari berri oien onartzea, "EODEN DIE (egun berean), LLAMADO CONVOCADO Y JUNTADO EL CAPITULO DE LOS MUY MAGNIFICOS SEÑORES PRIORES DE LA CONFRADIA VUGARMENTE DICHA DE MERCADERES DE LA CIUDAD DE HUESCA SO LA ADVOCACION DE NUESTRA SEÑORA DE LASALA Y DEL SEÑOR SAN FRANCISCO", egiñ ornen zen.

Ez dizuet zuen begien aurrera alperrik ekarri esaldi orren aipu luze ori. Garrantzi aundikoa den zerbaite eskeintzen bait digu bere barruan: Batzar artan Jaun aiek berealaxe agindu zutena ez zela UESKA'KO PPROBINTZIARENZAT agindua izan, UESKA'KO URI BERBERATENTZAT BAIZIK: Ueska Uriko "merkaderes" edo salerosleen kofradiko artekerientzat.

¿Zer izen zen ordea, ori garbi utziz gero, Jaun aaltsu aiek agindu zutena? Auxe:

"Artekari berri aietatik inork ez zuela legearen aurkako deus ontzat artuko, eta, bereiziki, "NI HABALARA EN GERIGONZA, BIZCAINO, NAVARRO, NI EN OTRO EXTRAÑO LENGUAJE, SINO EN NUESTRA LENGUA MATERNA".

¿Oartu zara zenbaitaiañako burugabekeri sineskaitza sartu erazi zioten esaldi ortan Jaun arropuz aiek beren notario edo baratariari?

- "Jerigonza", Aragoi'ko Erromantze onuragarriari esan zioten. Ueska'n, XIV eta baita XV mendeetako dokumentuak Aragoi'ko Erromantze ortan idatzi ziren. XVI'ean, Lasala'ko Andramari'ren ardurapeko Jaun Salerosle aiek, ez zuten lotsaren apurrik izen, beren lurraldean sortutako izkera arri orrelako gaitzizen lotsagarri bat eras- teko: jerigonza"!).

Saiaketa latza egin bait zen II Felipe Erregeaz gero Aragoi gaz- telerartzeko.

- Euskera, Erromantze guztiak beño askoz zarragoa zuten Ara- goi'en Jaun aiek. Euskera beraren altzoan eta latina gaizki ikasi eta okerrago agoskatzen zuten Aragoi'ko euskaldunen ezpaitaiañ jai

bat zen Erromantze zaar ura. Euskera zuten Jaun aiek beren lurral- deari izena ("Ara"- "Goi") eta, izenez gañera, izatea bera eman zion izkuntza. Alatagutziz "erbesteko izkuntza" "lenguaje extraño" esan zioten: "no hablará gerigonza, bizcaino, navarro, ni otro extraño len- guaje sino en nuestra lengua materna".

- "Bizcaino" eta "Navarro". ¿Bi izen, izkauntza bat berarentzat! Jaun aiek, Bizkaitarrek eta Naparre euskera berdiña egiten ez zute- la, ¿oartu ziren? Ez dut uste.

XVI mende artan, "Lengua Bizcaína" euskaldun guztien izkun- tzari, ots, Euskera Osoari, esaten zitzaion, lenxeago "Lengua Nava- rra" — "Lingua Navarrorum" esan zitzaion bezala.

Era berean esan oi zitzaion XVI mende artan "Bizcaínos" Euskaldun guztiei.

Baiña dokumentu au idatzi zen garaiean, Naparrak izengo ziren, ezpairik gabe, Ueska'n zebiltzen "Bizkainorik" geienak. Orregatik seguruaski erantsi zitzaion "NAVARRO" dokumentu ontako "BIZ- CAINO"ri.

Ta, orrela, Jaun aiek, beraiek ortzeke noski, gure Euskera, naiz tokiz-toki nako ezberdiña izen, izkuntza bat bakarra dela oroiterazi ziguten.

- "Lengua materna" izendatzen dute Ueska'ko aragoitar aiek, erbestetik ez indarkereirik aski erabili gabe — sartu zitzaion Gaztelerari. Lotsagarria, benetan.

Jaun aien jardukerak, gure Euzkadi ontan berreun urte geroago beste Jaun batzuek erabili zutena dakarkit gogora: "Real Sociedad Bascongada de Amigos del País" zeritzan alkarte artako gure Zal- duntxoena.

Izanere, orain txit goraiatuak diren Zaldun aiek XVIII mendean, España'ko Unibersitateetan irakaskintza "en lengua materna egin bear zela" luzaro karraxika ibilliz gero, lortu zuten Uniberesitateek, Latini utzita, Gazteleraz erakusten astea. Ta, beraiek ere, Bergara'n Ikastetxe bikain bat sortu zutenean, bertan ¿nola ez? GAZTE- LERAZ IKASTEN ASI ZIREN.

Orduan ordea, Araba'ren ego-muturretik, Armiñon izeneko erri txiki politetik, gizaseme batek, Bergara'n "lengua materna" Gazte- lera ez baiña USKERA zela idatzi zien.

Ona Zaldun txorabiatu aien erantzun alua: Bergara'n "lengua materna", (España guztian bezala, jakiña), Gazteleraz zala. Ta, Euske- ra, "lengua doméstica" zala.

Iguingariagoak... ¿nor ote? XV mendean Ueska'ko saleros- leak?, ala XVIII'ean Bergara'ko Zalduntxoak? Denak era berdiñean! Auek aiña beste aiek ere!

Eta auxe izen bedi nere gaurko azkeneko lerroa, salerosle aien zaindari zen Andramari aren izengoitia, LASALA, izen euskalduna dela azpimarratzeko: Benaparroa'ko toponimo edo lurrizena bait da LASALA, eta ortik sortuak direla gero Euskalerrri osora zabaldu "diren" Lasala abizen ugariak.

Ueska'n oraindik naiz jakintsuek (¿, ?) La Sala idatzi — "Nue- tra Señora de Lasala" esaten dio erriak Andramari'ren irudi arri.

Geldi nadin emen. Au besterik ez bait zen, gaur, nere asmoa: XVI MENDEAREN BIGARREN ERDIA ONGI SARTURIK ZEGOELA ERE UESKA'N URIAN BERTAN ORAINDIK EUS- KERAZ ITZEGITEN ZELA, bein betirako argi jaririk uztea.

Ta, amaitzeko, begiak idazlan onen astapenarako lerroetara begiak zuzenduz, galde au: ¿XI mendeko Errege euskaldun baten txepelkeriz, gure Aragoi maite ori Euskalerritik betirako mozturik gelditu izatea ez al da negargarria?

AMETZOLA

Alderdi orretara oraintsu-arte bultziak ekarten ebezan zamak eta gero bertan banatzen ziran artzedunen artean.

Baiña orain, zama-bultzien geltokia egon bearrean, gure Bilbao'ko Udalak BARATZ eder bat jarri dau.

Orrelan Errekalde'ko biztanleak baita Autonomia kale-raiño bizi diranak eta baita ortik kanpora bizi diranak be, atsedeen-toki eder bat, ibilbide ta egurazteko alderditxu pozgarria dauke.

Baratz orretan zelai ederrak jarri dira ta bertan moeta askotariko zugatzak landatu. Azken oneixek oindiño ez dabe gerizperik emoten jarri barriak diralako, baiña laster, urte gitxi barru, zugatz ederrak biurtuko dira danon poztazunerako.

Zelai ta zugatz orrexen tartean ibilbide zabalak eta luzeak dagoz notin guztiak nasai eguraztu daitezcan. Ibilbideetan, noizean bein aulki edo jar-tokiak dagoz, olan, ibilteari itzita, geldita ta atsegiñez begituteko norberen aurrean agertzen dan guztia.

Zelaiaren tartean be errekatxu bat dago, arri ta guzti bere uberkan jarrita, berezkoa bai litzan antza emoteko. Beronen ganetik iru zubitxu politak aurkitzen dira.

Errekatxu orren asieran lurpetik datorren ura ur-jauzte ikusten da ta bere zaratzuaz soiñu alai ta entzungarria ataritzen dau. Amaieran be bardin, beste ur-jauzte dago osin naiko eder baten ganean.

Olan, ur-jauzte biak eta tarteko errekatxuak bizia damotsoe baratzari; ura dabillen tokitik bizitasuna ikusten dogulako beti.

Baratza, oindiño ez dago guztiz amaituta, alboko baster bietan lur pilloak bakarrik ikusten diralako; baiña ikusten dan lez eta emoten dauan itxureaz datorren udabarrirako edo udarako beranduenez amaituta egongo dalakoa emoten dau.

Baratz orren ipar aldetik etxe ederrak egin dabez, baiña albo bietan ereigi bear dabezanak oindiño amaitu barik dagoz; oneik laster amaituta egongo dirala uste dogu, eten gabeko lanean diarduelako.

Ortxe bizi izango diranak ikuspegi eder-ederra izango dabe; batetik euren ondoko AMETZOLA baratza daukelako ta urriñerantza begira "Pagasari" mendi ederra ta oneri begira egon ezkeron nasaitasuna ta benetako bakea emoten daualako, guztiz ikusgarria da ta.

Oraingo uts bat bakarrik ikusten dogu ta au da: Landatu dabezan landaren artean ez dogu AMETZ bat bera ikusi, bai ARETX bat landa baten dagozan zugatzen artean. Geure itxaropena da, amaitu orduko, AMETZ batzuk landatuko dabezala ta ori gorenengo tokiren baten, erakusteko zelakoa dan alderdi orreri izena emon dautson zugatza.

Ikusten dan lez Bilbao'n be, noizean bein bai-




Ametzola'ko baratzan. Errekatxua eta zubitxuak.

ño ez ba da, baratzak egiten dauskuez danon poztasun eta osasunerako, zugatzak dagozan tokietan beti aize ohea ta osasuntsua aurkitzen dogulako.

Orrelan jarraitu bei geure Udalak eta bertoko biztanleek biotzez ezkertuko dautsoe.

EGILEOR'TAR JON



Ametzola'ko baratzan. Osin eder ganean ur-jauzte.

EUSKERAREN EBAZKIZUN AUNDIA

Euzkadi'ren ebazkizun aundiena, gure abefiaren euzkal-bizian eutsi, sendotu ta zabaltzea da, enurarik gabe. Gure Efi'ak benetan bizi bea baldin badu, euzkal-biziaz beterik izan bea du; ezin besterik ulertu.

Ortaz ari-izateko, jakiña, lenengoz euzkal-bizia zer dan argi ikusi beafda, ta ori eskiertasun aundienaz ere ikusi. Ortan dago egiazki euzkaldunok egin bea dugun guziaren oña i goto a. Ortze asiera, ezinbestekoa dan asiera, guztiok ontzat artu bea duguna.

Eta oso argia dugu, guztiok ere, euzkal-bizia zer dan, nolakoa dan; emen be zalantzik ez, ortxe euzkaldun guziok bat gera zearo, ukatzekorik ezpaitago iñundik ere. Euzkal-bizia euzkeraz egindako bizia, euzkeraren barnean, esango genuke, dagoen bizia; euzkeraren bizia.

Guziok ongi dakigunez, gure E ia, Euzkal-E ia da, euzkeraz bizi dan E ia; ta gure E i onen semea, euzkalduna, euzkeraz bizi dan notiña, ots, guzitarako ta edo-zertarako euzkeraz oldozten eta itzegiten duena, itzegiten beñepein oraingoz. Bi gertari auetan, euzkal-bizirako euzkerak duen ga antzi aundia ikus dezakegu. Nainkoa da ori geuk, euzkaldunok, euzkerari buruz ikusi ta onartu bea dugun erantzukizuna, euzkerari eusteko eginbidea.

Eginbide ori gure aldetik egokiro betetzeko, bea ezkoa zaigu euzkera bera ongi jakitea, ondo ere erabiltzeko; ortarako bidezkoena dugu gure izkuntza bera dan bezela onartzea, bere eliztiak dituen arauak oro jakitea, ta naiz itzegiteko naiz idazteko ertsiki gordetzea. Guzti ori euzkaldun guztientzat norabide bea a bezela eukitzeko.

Euzkeraren gaurko egokera ezta bea dan bezela agertzen; erderaen eragipenak eta euzkaldun geyenen zabarkeriak eri ta aul daukate gure izkuntza, alde guztietan erderaz oso kutsatuta agertzen zaigunez; eta ezinbestekoa dugu gure mintzaira alik eta geyen garbitzea, bere egiazko egokeran bizi diteken. Guzti ori ororen aldetik onartzeko dalakoan gagoz.

O ela begiratu bea dugu, geron gardiz, euzkeraren ebazkizun aundia; ta ebazkizun ori alde aunitzetatik aztertuta aurkeztu nai dugu orain atera dugun idazti ontan, "Euzkeraren ebazkizun aundia" izenez idatzi duguna.

Ebazkizun o en azpegi geyenak zeatzez egin eta aurketzen ditugu, lenengoz ebazkizuna argi ta bea dan bezela begiratzeko, ta gero guziok, ene ustez, eraman bea ditugun bide egokienak zeintzuk izan ditezken esondatzeko.

Idazti ontan, bereziki, ene barnean dudan kexutasun aundia agertu nai dut, eta gure E ia, E i bezela iltzeko zorian dugulako, nire biotzaren erditik bezela, deadaf ozen eta erdiraga ia bota nai du, euzkota guziaz, baña euzkaldun eta abertzaleai bereziki zuzenduta. Ebazkizuna ororena dugu ta ofengatik guziok, iñor alboraturik utzi gabe, bete bea dugu euzkerarenganako ta abe iarenganako dan gure eginbide ertsia bera.

Euzkeraren bidez baka ik gaizkatu al-izango da gure E ia; ez aitzu iñoiz, otoi, egia aundi au.

Ufestarazu'taf Andoni (+)
(Umandi)



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

EUSKAL ASTEA
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
AYUNTAMIENTO
LAGUNTZAILLE

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k aurten be, urte guztietan lez, Bilbao'ko Udal-Batzaren diru-laguntzaz, EUSKAL-ASTEA egingo dau zemendiaren 29'tik abenduaren 3'ra. Itzaldia arratsaldeko zortziretan izango da. Gaiak eta izlariak sasoiz iragarriko doguz.

EUSKERAZALEAK

EUSKALERRIA: EDESTI-GIOIA (V)

Aizgorri'ko San Adrian kalzada

Aipatu ditugun San Julian de Aistra eta San Juan de Araya (eta aitatu ez degun oien antzekoa), San Martin de Hermua) bide erromatar famatu baten inguruan daude: 34 deritzan bide nagusitik gertu; baña, alde batera. Eurak ematen zioten asiera beste bide zaar bateri, bide euskaldun bateri: San Adrian'go kalzadari.

Araba aldetik Aizgorri'ra igo eta San Adrian'go leize-zulotik aurrera, Gipuzkoa'ra aldatu, milla metroko alturan, eta andik jetxi, Oria ibaiaren aldamen bat artu eta Hernani'tik Oiartzun'era; an bidea bikoiztu, beso bat Ondarribi'ra eta bestea Irun' era, Frantzia' n sartzeko. Orixe zan biderik zuzenena Errioxa eta Kastilla'tik Frantzia'ra igarotzeko. Ez zegoen Alsasua'raiño joan bearrik Gipuzkoa'ra jeisteko.

San Adrian'go tunel orretan, Gipuzkoa aldetik, beti izan da ermita bat eta ostatu bat naiz eta milla metroko alturan egon. Ori zan Kastilla' tik Frantzia' rako bidea. Ba dirudi, aurkitu diran ermitatxo bisgotiko oiek adierazten digutela, leizeetako erremutar kristauek bide ori artu zutela Gipuzkoa'ra sartzeko.

Gerora ere Santiago bidean zebiltzan erromesek ere bide ori artzen zuten, Frantzia'tik Kastilla'ra joateko. Eta San Adrian'go ermite orretan bataiatu zuten euren

aurra Lazkano'ko Jaunek, eta ara etorri ziran aitabitxi eta amabitxi izateko Felipe Ederra eta Juana Eroa, Kastilla'ko Erregeek. Bide erdira, San Adrian'dik Gipuzkoa'ko ballarara milla metro jetxiera dago eta lazkaularak joan ziran gora, Kastilla'ko Erregeei jetxiera errezteko.

Beste xeetasunak ere badaude: milla metroko jetxiera orren bailaran, egiten ziran zalgurdien errepassoak; frenoak eta beste okerrak zuzendu. Gorarako ere berdi egiten zan: lan gogorra zan igoera, gurdiak ondo prestatuta joan bear zuten bidean. Orregaitik edo, gizaldieta-ko lanen ondorenak guarko egunez ikusten dira: ortxen daude Beasain' en F.A.C. (Fabrica Auxiliar de Ferrocarriles), Bilbao'ko Metrorako trenak egiten duna, eta Irizar lantegia Ormaiztegi'n, curen autobusak mundu osoan zabaltzen dute Euskalerria'ren berriak. Txiripaz? Emen ere esan genezake gauza guztiak dutela curen zergatia.

Alsasua'ko bidea

Bi asierako bideak ziran San Adrian'go kalzada eta Alsasua'ko bidea. Biak, artalde bideak, San Adrian'goak Aizgorri mendarte erdi-erditik igotzen du

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
UDALA
AYUN
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAIN'TZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmatu'rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean. Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta.
- 2.^a 30.000 pezeta.
- 3.^a 20.000 pezeta.
- 4.^a 10.000 pezeta.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKARAZALEAK

EDESTIA

Kastilla'tik datorren bidetik zuzenean. Besteak, berriz, Aizgorri'tik ez du igotzen; ekialdera jotzen du jetxiera bat billatzeko Aizgorri eta Aralar mendarteak alkartzen diran gunean.

Auek biak dira bide zaarrak; oraindik orain iriki da beste bide berri bat Salinas'tik beera, Aizgorri'tik sartaldera. Deba ibaiatik beera doa. Deba'ibaiaren sakanetik Zumarraga'ra igotzen da eta emendik Oria ibaia artzen du. Baña, bide au XVIII'garren gizaldikoa da.

Oria'ko sakanera jeisten dira bai Alsasu'ko eta bai San Adrian'go bideak ere eta Ondarribia'ko edo bestela Behobia'ko ibaietatik pasatzen ziran Frantzia'ra gure artzai zaarrak. Bi jetxiera auetan, Alsasu'koan Idiazabal'en eta San Adrian'goan Ormaiztegi'n aurkitu zitun D. Manuel Lekuona'k bataiatzeko pila-arriak, erromaniko baña zaarragoak. Badirudi, bide oiek izan zirala kristautasunaren bideak. Ortik aurrera jotzen ba'degu Altzo'ra elduko gera, Altzo Azpiko'ra; aurrerago, berriz, Irun'go Santa Elena ermitatxoa eta El Juncal'eko eleiza.

Aztarna kristau onek San Adrian'go kalzadatik datoz eta andik, iru ermitatxoen bidez, Kantabria'rako bidea artzen dute, ainbeste aremutar kristau bizi izandako tokiak. Leku artatik datoztela dirudite aztarnak; an dau de Bilibio'ko malkarrak, San Felices'en egoitzak, eta au izan zan San Millan de la Cogolla'ko eremutarraren mai-xu, Disterzio-mendietan bizi zana, VI'garen eunkiaren aldera. Auen aztarnak San Adrian'go kalzadatik sartzen dira Gipuzkoa'ren biotzera.

Baña ez da au kristauaren bide bakarra; Alsasua'tik beera datoz Ekialdeko aztarnak, San Juan de la Peña eta Pirenee-mendietatik Naparroa'ra, San Miel Exzelsis'ko eleiza'tik Gipuzkoa'ren biotzera.

Bide oietatik kanpora, itxasotik etorria, or daukagu Astigarribia'ko eleiza bisigotikoa edo... Altzo-Azpi eta Santa Elena, egoaldetik datoz, San Adriango kalzadatik; Ekialdetik or daukagu San Juan de la Peña eta San Miel; itxasoaldetik, Astigarribia... Alde guztietatik dator kristau-kutsua... Ifar-aldetik, berriz, Akitania daukagu Gotzaitzegiz beteta... Andik ego-alderuntz Gipuzkoa daukagu kristau-aztarnaz inguraturik...

Erromanikoa Gipuzkoa eta Bizkaia'n

Ainbeste bidetik kristautasuna agertu ba'da gure artean, arritzekoa da erromaniko kristau-aztarna ain gutxi eta txikiak azaltzea. Manuel Lekuona jaunak, dauden apurrak, San Adrian'dik datorren bidean ipintzen ditu; geienak ate-aurreak eta leioak. Onoko erri auek aitatzen

ditu: Hernani, Igeldo, Pasai San Pedro, Urnieta, Berastegi eta Helduayen, Tolosa'ko San Esteban, Amezketa'ko Huarte, Abaltzizta, Albistur'ko San Marina, Itsaso... Oria ibaiean, San Adrian'go bidean. Orio eta Urola ibaiaren artean Zumarraga'ko Antigua; Urola'tik beera Azkoitia'ko eliza zaarra; eta Deba ibaiaren ballaran Aretxabale'ko illerria, Mondragoi'ko Garagartza, Eskoriatza'ko Bolibar eta Bedoña'ko apaiz-etxea... (Orio, Urola eta Deba ibaiak, irurak dute beuren sortzea Aizgorriko aitzetan).

Oiek Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n berdin: gutxi, garrantzi gabeak eta lurralde guztian zabaldua: Arrigoarriaga'ko Abrisketa eleiza, Santurze'ko San Jorje eleiza, Lemoniz, Mungia'ko San Pedro, Fruniz'ko eleiza, Zumatxaga'ko San Miel, Bakio'ko San Pelaio, Arteaga eta Kortezubi'koak, San Bizente Mujika'koa eta ermite Abadiño'ko San Torquato, Zenarruza'ko illobia, Tabira Durango'n, Yurre'ko Santa Luzi, Orozko'n Ibarra'ko ermita eta Galdakano'ko Santa Maria.

Zergaitik ain urri?

Manuel Lekuona jaunak dionez, elizak berri eta aunditzeko joera sortu zalako, txikitxoak zirelako ala besteak baiño gutxiago ez izateagaitik... Txikiak apurtu eta berri-berriak egin, leengo zati zaarrik gorde gabe. Beste arrazoi bat ere ipintzen du eta auxe da; elizak zurezkoak zirelako; zura kendu eta arria erabili berriak sortzeko. Irugarren zergatia ere badakar: gure artean ez zegoelako ez Gotzairik ez Erregerik. Oiek egiten bait zituzten jauregi ederrak eta monastegi zabalak, Naparroa'n gertatzen dana eta apurka Araba'n ere bai.

Astigarribia'ko San Andres eliza

Itxaso-bidetik agertu zan eliza bikoitz au: bata bestea-ren barruan. Orixe gertatzen da Irun'go Santa Elena'n, San Juan de la Peña'n, Aralar'ko San Miel'en, Cogolla'ko San Millan'en...

Astigarribia ezaguna zan erromatarrentzat, Tritium Tuboricum izenakin. Euren Gipuzkoa'ko mapa batean, Oyarzun (zidarrezko meatzak), Donosti-Pasai, Getari eta Deva ibaiako Tritium Tuboricum. Zer billatzen zuten lau izen oietan? Oiartzun'en zidarra, Donosti-Pasai eta Getaria'n itxas-ontzientzako babes ederrak; baña, Deva ibaiako Tritium Tuboricum orretan, zer? Astigarribia dala diote aots batean edestigilleak. Baña, inguru aretan ez

dago babes onik, ez meatzik... Gauza bakarra dago an: edateko ur eder ugaria. Ibaiara bertara dator aitz-artetik iturri eder-eder bat, errekatxo baten antzera. Barkutik bertati artzeko eran. Barkuentzako edateko ura ugari eta artzeko erreza... Eta erromatarrek edateko ura ardura aundiz ipintzen zituzte euren mapetan...

Eliza bikoitza da: bata bestearen barruan eta ibaitik gertu. Badirudi kanpo aldeko eliza, bestea zaintzeko egin zutela; zulo luzanga (saeteras) batzuek ditu ibai-aldera, andik arriskua etorriko balitz bezela. Barruko elizak, aurrean leioa du zaldiperraren antzeko. Don Manuel Lekuona k bisigotikoa zala esan zigun. Baña, ondoren an ibillitako jaunak, mozarabe garaira atzeratu zuen, bisigotiko izateko inguruan bisigotikoen garaiko agerpenak falta zirelako. Baña, Astigarribia (Tritium Tuboricum) erromatarren garaikoa da, bisigotikoa jaio baño eunkada asko zaarragoa. Nola esan liteke, bisigotiko kontestorik ez dagoela Astigarribia 'n?

Dana dala eta dena den, San Andres'en Astigarribia'ko elizak, bere zaldi-perra leioagatik, bere bikoitzta-sunagaitik, San Andres izena berberagaitik... deika daukagu esanez: bera izan dala kristautasunaren lenengoeta-ko agerpena Gipuzkoa'n eta itxasotik etorria.

Erromanikoa Naparro eta Araba'n. Errege eta Gotzaien eragiña

Lenego erregetik asiko gera: Iñigo Arista (Ximeno'ren semea). Onen garaian (Claveria, Historia de Navarra) "Opilano, Gotzai jaunak zuzentzen zuan Iruña'ko Gotzaitzia. Orren denboran San Euljio martiriak, Aritza zan errege, ikustaldi bat egin zien gure mendietan bizi ziran monastegia geienai eta 851'garren urtean Welesindo Gotzaiari egiñiko eskutitz batean zer arrera ona egin zion Gotzaiak, zer onaldi eta espirituko atsedenean bizi ziran eremutarren taldeak, eta zer pake eta lasaitasunean bizi ziran Panplona'ko baskoiak, printze kristauaren ardurapean".

Eremutarren talde ugariak Pirene-mendietan eta Arizta'ren erreinoan eta beste orren beste Kantabria eta Errioxa'ko aldeetan, San Millan tartean dala...

Irugarren Erregea: Fortuño Garzes I. Bera sartu zan Leire'ko monastegian, mesede aundiak egiñez (882-905) Leire 'ri.

Laugarren Erregea: Santxo Garzes I (905-920). Albelda'ko monastegia jasotzen du.

Zortzigarren Erregea: Santxo Garzes III, Aundiena (999-1035).

Kristau-giroa eraberritzeko Oka'ko emakume-monastegira eta San de la Peñako'ra monje berriak ekarri zitun San Benito'ren ordenakoak. San Vitorian'neko monastegia berritzen du eta beste batzuek jasotzen ditu. Leire'koai emaitza aundiak egin zizkion. Laorre'ko (Aragoi) militar-erligioso naasteko monastegia eta Ujue'ko eliza eraikitzen ditu. Bere garaian, eta bere laguntzarekin, Leire'ko monastegiako Abata Santxo'k, berritze ederrak egin zitun monastegian; Estella'ko Beremundo Abatak Iratxe eta Irantz'ko monastegiak egiten ditu, eta Fitero'ko Raimundo Santuak, bertako monastegi ederra... Iruña'n bertan "Pedro de Roda" edo "de Paris" Gotzaiak, katedral erromanikoa jasotzen du; beranduago errezana.

Bederatzigarrena: Gartzia Santxez, Najerakoak, bertako monastegia eta San Millan de la Cogollakoak eraikitzen ditu.

Amargarrena: Santxo Gartxia IV (Peñalen'goa) (1076'an il zutenak).

Leire'ko monastegia berritzen du, Clunia'ko monjeak ekartzen ditu eta mozarabe liturgia kendu, gregoriano' a ipintzeko.

Amalaugarrena: Gartzia Ramirez IV, Berritzaillea, (1134-1150), Oliva 'ko monastegia jaso eta Cister 'eko monjeak ekartzen ditu.

Amaseigarrena: Santo VII, Indartsua, Navas de Tolosa eta Naparroa 'ko kateak ekarri zitunak, Orreaga Kolejiatan dago eortzita, sepultura ederrean...

Orra or erregeek egiñiko zenbait erromaniko eleiz eta monastegi ederrak; baña, oiekin ez degu errenkada amaitu: ba daude baztarretan jauregi ederrak bai Gotzaiak bai Erregeek egiñak.

Araba

Araba arloteagoa da. Armentia'ko Gotzaitzia Kalahorra 'ra indarrez eraman zutenean, andik laguntza batzuek izan ziran, Armentia'ko eleiza eta Estibaliz'ko monastegia egiteko.

BARKUGINTZA

Iruña'ko Erregeak

Amairugarrena: Alfonso Santxez I, Burrukatzaillea (1104-1134).

Gudari napar, aragoitar, Bearne eta Bigorre'ko men-

EDESTIA

dekoekin, Tudela eta Zaragoza (1118) menperatzen ditu. Bederatzi urte ondoren Pirenee-mendartea igota, beste aldera jeisten da bere mendekoen laguntzan, Poitiers eta Akitania'ko Dukeen erasoei aurpegi emateko.

Baiona'ri esia jartzen dio eta "ibaian bertan barkuak egiten saiatzen da eta Gipuzkoa eta Bizkai'ko portueta-tik itxas-ontziak ekartzen ditu, itxas-aldetik laguntzarik artu ez zezan Baiona'k". Goseak eraginda burua makurtu zuen erriak 1131'garren urtean.

Orra Iruña'ko Erregea berbera, barkugintzan XII'garren eunkian.

Amabosgarrena: Santxo VI, Jakintsua (1150-1194).

Esanda daukagu nola sortu zuen Donostia eta berak emandako Fueroak argitzen digu zer gauza sartzen eta irteten zuten portu orretatik: gauza askoren artean bat da pikea, barkuak kanpotik igortzi eta zirrikitu guztiak betetzeko; eta bestea, sokak oialak mastari lotzeko, bearrezkoak auek bela barkuentzako... Baiona eta La Rochelle'kin ar-emanak sendotu zitun; baita Gipuzkoa eta Bizkaia'kin ere.

Emen daukagu Iruña'ko bi Errege, XII'garren mendean, barku eta itxaso-merkataritza aitaten dituztenak.

Zer-edo-zer geiago ere bada tartean: Donostia'k bere erriko ikurran, seilloan, barku bat erakusten digu, erromatarrek erabiltzen zituztenen antzekoa: popako gaztelu berdiña, leman egiteko arraun berdiñak, masta eta oialak berdin, sokak lotzeko sistema berdiña, eta ala ematen du artimoiak (lemari laguntzeko muturreko bela txikiak). Xeetasun guzti onek agertzen digute, euskaldunen mai-xuak barku-gintzan erromatarrek izan zirala eta ez bikin-goak. Auek barkuak arraunekin erabilten zituzten lapuneta eriotza gure errian ereintzeko.

Erromatarrek geure kaietan lareun urtez bizi izan ziran euskaldunen artean; Asturiaga'n bat eta Garona ibaiean (Bordel ondoan) beste bat utzi zizkiguten ondoratuta... eta beste asko zatituta gure kaietako ondartzetan. Gañera gizaldi oietan euskaldunek egingo zituzten lan asko, arotz bezela, errementari bezela, mariñel bezela, kalafate (pikea ematen) bezela... Denbora naikoa eduki zuten barkuak aien antzera nola egin ikasteko.

Baiona eta arraiñak

"Juan sin Tierra", Ingalaterra'koak Fuero bat eman zion Baiona'ko udalari, arraiñak saltzeko nai zuen toki guztietan, baña estranjeruekin batu barik. Ingles baten-tzako kanpotarrak Gipuzkoa eta Bizkaikoak izango

ziran. Arraiñ asko arrapatzen zuten eta beste euskaldunekin bat eginda.

Ebro ibaiean ontziak

Plinio'k esaten digunez, Vareia'k (Logroño) oso zuen merkataritza aberatsa barkuz Ebro ibaian zear. Moret istoriagilleak (Anales III, 243 orri.) dionenez, 1132'garren urtean, barkuz eraman zituzten Tortosa'raiño zurezko tramankuluak burrukarako Tortosa'ri egindako esian.

Almadiak ere or daude erreketatik aurrera enbor sail-lak eramateko era berezia; batez ere barkuak ezin ibilli diranean. Musulmangaraitik onera erabiltzen direnak.

Barkugintzak beste labide asko sortzen ditu, naiz zurezko, naiz burnizko, naiz liñuzko eta abarrezko. Burnia era askotara bear da ontzi batean: aundia aingurak egiteko, txikia iltzeak egiteko... Burnia lantzen Zeltek erakutsi ziguten; aiek ziran orduan Europa'n nagusi ekintza orretan. Aiengandik ikasi genduen burnia lantzen gure artean egondako bosteun urteetan eta geu ere maixu gertatu izan gera gizaldietan zear.

Padura'ko Burruka

Asturias Bizkai'ko Sartaldean kokatu zan, Enkarterria bere mende arturik. Artan Leon'eko Erreinoa sortzen da, Kastilla barruan duela. Kastilla bere askatasunaren billa jeikitzen da eta berdin egiten du Bizkaia'k. Egoera orretan gertatzen da Padura'ko Burruka, Arrigorriaga'n. Bizkaitarrekin Durango aldea, Araba eta Gipuzkoa'k jokatzen dute, Jaun Zuria buru dutela; Leon'gokoek, berriz, Ordoño Printzea. 870'garren urtean austen da betirako burruka onekin leondarren jauntasuna.

Ingalaterra eta Baskoniako Duke-erria

XII'garren eunkian Akitania eta Baskonia'ko Dukea, Ingalaterra'ko Erregearekin ezkontzen da; dote bezela eramaten ditu Akitania, Baskonia Laburdi eta Zube-roa'kin, danak batera. Arrezkero Ingalaterra'ko Erregearen mende gelditzen dira. Naparroa'k, berriz, Benabarra artzen du beretzat. Erregetza onek Santxo Aundia iltzean, Frantzia'ko Champagne'tarren Teobaldo artuko du beretzat errege. Onek asiko du Frantzia'ko etxea Iruña n.

1.200 urtea

Urte onetan Araba, Giupuzkoa eta Bizkaia, Naparroa utzi eta Kastilla'ren uztarrria artuko dute, errekonkista amaitu arte, Granada'ko erreinoa menperatzean. Santxo Indartsua, Afrika aldetik zebilela, Alfonso VIII'garrenak Gipuzkoa'n sartu eta Bizkaia eta Araba'kin bat egingen du. Orduan uzten dute napar erregea, Kastilla'koa artzeko. Arrezkero euskaldun aundiki asko joango dira moroen aurka burrukatzera Kastilla'rekin bat egin da. Oien artean Lazkano eta Loiola'ko jauntxoak.

EUSKALDUN BARKUAK ETA KASTILLA'KO ERREGIAK**Fernando III'garrenak Sevilla atzeman**

Sevilla menperatu zuten Azaroan 23, urtea 1248. ("Gestas Vascongadas", Javier Ibarra y Bergé. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. San Sebastián, 1951. 39-43 orri.). Egun arretan bi barkuek eraso-aldia jo zuten, Triana auzoa Sevilla'kin bat egiten zuen, txalopa aundiekin egindako eta katez lotutako zubiari. Bi barku oien kapitana batek Zaldibar zuen izen eta lekeitiarra zan. Bonifaz almiranteak amairu galeoi astunak eta bost galera ariñagoak zitun bere mende egun aretan. Erregeak agindu au eman zion aurretik: Joateko Euskalerrri'ra lenbai-len galeioak eta galerak prestatzera... aal zitun geienak eta onenak eta gure mendietako zura, eta gure oletako burnia eta gure barkugintza lantegietatik egiñak... Baita mariñelik onenak ere billatzeko.

Moroen ontzien aurka burrukatu zuten zeatz: iru arrapatu, bi ondoratu eta beste bat erre. Egun artan sortu zan Kastilla'ko Itxas-ontzi Taldea. Legorretik ere ari izan ziran burrukan euskaldunak ("vizcaínos"), Lope de Haro'ren gidaripean.

Itxas-maixu Eskola (Maestranza) eta Ontzi-ola

"Burrukan ari izan ziran euskaldunetik asko Sevilla bertan gelditu ziran bizitzen eta aieri eskerrak sortu zuen Fernando III'garrenak Itxas-maixu Eskola (Maestranza) eta Ontzi-ola (Astillero) Ontzi-taldea'ren eutsigarri...".

Algeziras'eri esi-aldia

Eun urte beranduago or nun ikusten degun Gipuz-

koa'ko Jaun aundi bat bere itxas-ontziekin Aljeziras'eri egindako esi-aldian parte artzen. Eta ori bere gogoz egin zuan iñork beartu gabe. Ala dio Alfonso XI'garrenak Maiatzaren 25' ean, urtea 1345' go idazki batean. Eta andik Estretxo'ra joan ziran, zain, moroen ontziaz, etorri ezkeroz, aurre emateko.

Juana Manuela Bizkai'ko Jaunesa, Enrike de Trastamara, Kastilla'ko Erregearekin ezkondu zan eta euren seme Juan I, izan zan batera Kastilla'ko Errege eta Bizkai'ko Jauna. Furoen gañean zin-egitera joan zan 1371'ean.

Londres'ekin Itzarmena

Merkataritza ausita zegoen ingles eta euskaldunen arteko itxas-burruka zala medio. Ori zuzentzeko itxarmen bat ziñatu zuten euskaldunen eta inglesen artean Agostuaren 1'an 1351'garren urtean. 20 urterako pakea itxasoz eta legorrez. Eduardo VI'garren izenean lau gizonak siñatu zuten itzermana; eta euskaldunen artetik iru jaunek.

Ondoren, bi urtez beranduago, Baiona'kin egin zuten beste orrenbeste gipuzkoarrek eta bizkaitarrek. Baiona Ingalaterra'ren mende zegoen une aretan.

1372'an bizkai eta gipuzkoarrek, itxasontzi talde bat jaso zuten euren kaletan, Ingalaterra'ren aurka, Frantzia'ri laguntzeko. Ontzi-taldea La Rochelle'era eldu zanean, legorrera sartu eta bertan zeuden inglesak menperatu zituzten.

Turko'en kontrako itxas-burrukarako, Don Fernando Erregeak, 1480'garren urtean, euskaldunei eskatu zien laguntza eta auek, iñork beartu gabe eta beuren gogoz, 50 gerrarako barkuak eta Don Fernando'ri eskeiñi zizkioten Bizkai eta Gipuzkoa, bien artean.

Amerika aurkitzea

Juan de la Cosa izan zan Maria Galanta'ren pillotua, gero Santa Maria izango zana. Beste biak baño aundia goa zan. Eta ibillaldi orretan euskaldunak izan ziran tar-tean.

(Colón y los Vizcaínos". Ramón López Domech. BBK. Temas Vizcaínos 214. Octubre 1992). Idazle onek dionez, esan liteke, Colon'en mariñeletan bit talde zue-dela: bata Andaluziarrak eta bestea Bizkaitarrak, Pinta eta Niñaren jabeak aukeratu zituzten Andaluzia'koak, eta bizkaitarrak ziran geientxuenak Santa Maria

galeoian, bere nagusia, Juan de la Cosa, bizkaitarra ez ba'zan, Bizkai ingurukoa zalako.

Taldea bi karabela ariñak eta galeoi astunak osatzen zuten. Urria'ren 6'ean urtea 1492, Santa Maria'ko bizkaitarrak, 62 egun itxasoan pasa ondoren, Colon'en aurka jeikitzen dira, ibillaldian egunero 6 edo 9 nudo gutxiago esaten dielako; engañu egiten dielako. Pinzon anaiak, bi karabalen nagusiek, baretzen dituzte bizkaitar mariñelak. Baña, berriro sortzen da asarrea lau egun beranduago, bi bakarrik falta ziranean luna aurkitzeko.

Colón ez zan familiz mariñela eta 19 urte zituen itxasora lendabizi joan zanean. Madeira'ko ugarteetan mariñel zaar batek aoz (euskaldun balezaleren bat ziur) jakin zuen Sartaldean lurak zeudela. Egi ori izkutuan gorde zuan eta ez zien mariñeleri ezer esan; baña, bai Errege Katolikoen laguntza lortzen lagundu lezakeanai.

Bein luna aurkituta, Colon kostarik kosta ibilli zan eta Natibitate Egunean, lurrari eraso zion galeoi zaar arekin. Presa zuen Colon'ek Espaiña'ra itzultzeko eta ez zuen nai galeoi astun aretan etorri, karabela ariñetan, baik.

Galeoiaren zatiekin gordeleku bat egiten dute eta an bertan 39 mariñel utzi zitun; batez ere berarekin burrukan egin zuten bizkaitarrak. Andik urte batera etorri ziranean, guztiak ilda zeuden. Eriotza oiengatik senitartekoek egin zituzten escabideen bitartez, dakigu izen batzuen kopurua:

Chanchu edo Chacu, emakume debatarren semea, baña Leitio'n bizi zan kontramaixua; Domingo, tonele-rua, Ispaster'koa; Domingo lekeitiarra, María Bizkarraren semea; Juan Martin de Azoke, Deba'n bizi zana; Juan Ruiz de la Peña, bizkaitarra (bi azkeneko mariñel auen senitartekoek dirua jaso zuten debar baten eskutik); Lope, kalafatea, Bilbo inguruko bizkaitarra; Martín de Urtubia, txo, bere soldata, Lekeitio'ko Likona prokuradorearen eskutik jaso zuen Na-txitu'ko bere amak... Lau izen geiago daude; baña, an ildako gizonak 39 ziran.

1493 urteko Iraillaren 25'ean irten zuen Colon bigarren aldiz Ameriketarako: 17 barku eta 1500 inguru gizon; aien artean euskaldunak ere bai.

Bigarren biajerako Bermeo'n prestatu zituzten karrika bat, bost galeoi eta karabela bat, Lekeitio'ko Iñigo de Artieta'ren gidaripean. Baña, Amerika'ra bearrean, Afrika'ra joan ziran Boabdil, Granada'ko erregea, eramaten. 1493 urteko Urria'ren 3'an, Colon baño zortzi egun beranduago, Almeria'ko Adra'tik irten zuen Bizkai'ko Talde onek Boabdil eramateko. Karraka merkatari-ontzian zijoazen 100 mariñel eta 250 gudari; ia guztiak Lekeitio'koak Artieta buruzagia bezela. Bigarren ontzia,

galeoia, Martín Perez de Fagaza, Bilbo'ko kapitanaren mendean, 40 mariñel eta 160 gudari, geienak bilbotarrak (Bilbao-Barakaldo). Irugarrena, galeoia, Juan Perez de Loyola giadari, 40 mariñel eta 80 gudari, geienak Deba'koak. Laugarrena, galeoia, Anton Perez de Leyzala, kapitan, mariñel eta gudariak, guztiak gipuzkoarrak. Bosgarrena, galeoia, Juan Martin de Amezketa, lekeitiarra gidari, 25 mariñel eta 40 gudari, Lekeitio'koak. Seigarrena karabela txiki bizkorra zan, kala guztietan sartzeko modukoa, gorde-lekuak billatzeko era "bear ba'zan lapurretan ere egiteko"...

Colon'ek Artieta'kin ar-emanak zitun, baña Errege Katolikoek eragozpenak ipiñi zituzten tartean. Zer nai zuen Colon'ek? Portugesai indarra erakutsi, berari, Colon'eri Ameriketako bidea libre usteko? Indar erakutsi zien euskaldunek Boabdil erregea Afrika'ra eramateakin... eta naikoa izan zan Tordesilla'ko Itzarmena siñatzeko 1494'ko Ekainean: bertan markatu ziran munduan zear nundik España ibilli eta nundik Portugal.

Bizkai'ko Gerra-ontzi Taldea Mediterraneo'n

("Etnia Vasca", Donato Arrinda-Manuel Estomba. 227-8 orri.). Giovanni Villana, Florenzia'koak idaz-lan batean 1304'ean dionez: Garai auetan Baiona'ko itxasgizonak agertu dira emendik lapurretan ontzi arin batzuetan; kokak deintzen dicte... Arrezkero Genoba eta Katalunia'ko mariñelek koka erabiltzen dute itxasora curen ontzi astunek ordeztu... Mediterraneoako galera, arraunekin, bixkorra zan burrukarako baño oso neketsua merkataritzarako... Ontziaren tankera eta kodasteko lema, euskaldunek erakutsi zizkiguten; baña, eurok ere ikasi zuten zerbait: curen ontzien egurrak bata bestaren gaiñean ipintzen zituzten (tingladillo), ertzeetan banatu bearrean; onela ariñago ibiltzen da ontzia... Bela asko ipintzea ere ikasi zuten, masta askotan banatuak eta orekan... Ifar-orratza, itxasoan ibiltzeko mapak eta ortziari begiratzen ere ikasi zuten... eta ekonomi aldetik, segu-ruak; itxasoak dakarren arriskutik gorde.

Orrela sortu ziran gure barkugintza-oletan karabela, pinaza mota guztiak eta galeoiak... Auek ziran batez ere, gerra ontzietako taldeetan, nagusienak eta ugarienak. Gure itxaso-ertz guztiak, Zierbana'tik Baiona'ra bitartekoak, barku-gintza olez bete ziran ibaietan barruan ere.

ARRINDA'TAR ANES

ARKITEKTOAGAZ BERBETAN (BAKIO)

Bakioko Udalak une onetan erriko arau subsidiarioak barriztetan diardu. Ori dala eta, oso une egokia begitandu jaku Bakiok urigintzaren inguruan daukazan arazo, erronka, itxura eta abarren inguruan berba egiteko Javier Bengoa "Mungi" udal arkitektoagaz egotea.

ZER: Bakiok ingurune zoragarria eukita be, argi dago, batez be, areatza ondoko gunea apur bat laskituta dagoana. Badago egoera ori konpontzerik edo leuntzerik?

Javier Bengoa: Egia esan, ez. Orain dala 30 urte, gitxi gorabehera, egindakoa eginda dago eta ez dago ezelan be konpontzerik. Jakina, administrazioak ori aldatzeko diru piloa eukiz gero –eta Ameriketara orrelako esperientzia batzuk egon dira–, etxeetako jaubeei ordaindu edo diru kopuru zeatza emon aal izango leuskie beste etxetxu bat egiteko, beste leku baten, eta gune orretako etxeak bota. Baina, jakina, administrazioak bide ori jorratzeko bear beste diru ez daukan lez, proiektu ori bideraezina da. Beraz, eginda dagoana eginda dago eta ez dago aldatzerik.

Ganera, naiz eta beste etxebizitza bat emoteko aukera egon, Toloñon 10. pisuan dagoan pertsona bateri ezin deutozu orrelakorik planteatu, ze ortxe dago areatzaren ganean eta, jakina, ikuspegi ori barrutik kanpora oso polita da, kanpotik barrura guztiz motza izan arren. Orduan, aurrerantzean ez da orrelakorik geiago egin bear eta kitto.

Ganera, gaur egunean, orrelako gauzak geiago kontrolatzen dira erritarrek curen ingurunea obeto jagoten dabelako eta beste arau mota batzuk dagozalako. Beraz, areatza inguruko gunea ori apaintzeko, ba, orain egin dana egin bear da: itsas ibiltokia eta antzeko gauzak, akaso kirol portua be...

Baina, kontuan artu bear da orretarako diru asko bear dana, batetik, eta itsasaldea ez dana geurea, bestetik, ze, naiz eta erriak erabili, inguru ori guztia Itsas Mugarte Sailaren menpekoa da. Alan da ze, eurak dira zeresana eta zereginda daukenak.

ZER: Erri bateko izakera ingurune fisikoari lotua dago. Zein izan leiteke Bakiori ondoen jatorkon ingurune ori?

JB: Leenengo eta bein, planteatu bearko litzateke ea Bakio zer dan. Jakina, Bakio erri txikerra eta bertan dagoan klimari esker oso egokia izan da ortuan-eta bear egiteko. Baina, itsasoaren erabilpenari ekiteagaz batera, udatiarrak ailegatu eta orrek erria oso-osorik aldatu dau ingurune fisikoari zein izakerari jagokonez. Ganera, gaur egun, Bakio zearo sartuta dago zerbitzu arloan, orrek erriko jendeari dirua emoten deusolako.

Gaur egun, ez dago beste aukerarik, au da, ez dago soluan bear egin eta orretatik bizimodua ataratzeko modurik, baina bai lokal bat martxan ipini eta ondartzara datorren jendeari gauzak saltzea. Orduan, garbi euki bear da Bakio ondartzatza daukan erria dana. Azken baten, nortasuna

nork emoten dau? Ze, Bakiok neguan 1.500 biztanle daukaz eta udan, ostera, 11.000 baino geiago. Orrek itzelezko eragina euki ez eze, erriko nortasuna be aldatu egiten dau goitik behera, 1.500 orrek ezin dabelako ain izakera gogorra euki 11.000 pertsonen jokabide eta jarrerak aldarazoteko.

Azken baten, erriaren erabilera ludikoa badago eta orrek eragin nabarmena dauka. Izan be, emengo erritar askok udan egiten dabe bear eta neguan oporrak artu, au da, lokalak, jatetxeak, tabernak, kafetegiak,... ixten dira jenderk ez dagoalako, baina udan itsasoa daukazu. Orduan, urigintza aldetik zer egin bear da? Lurraren zati andia ondino be bertoko jendearena da. Alan da ze, ori jagon bearra dago, ze, urigintza geiegi zabaltzen bajako etxegintzari, bertokoak solo eta lur barik geratu eta orren bitartez izakerari lotutako ezaugarriak eta Bakio bera be galdu egingo litzatekez.

Orduan, nik uste dot gaur egun udalean bearrean dabilza bertoko gauzak, oiturak eta ezaugarriak indartzeko.

ZER: Sarritan, Bakiok zerbitzu geiago euki bearko leukezala aitatzen da. Zeintzuk dira, bada, zerbitzu orreek?

JB: Orrelakoetan berbetan gabiltz bertoko jendearentzako proiektuez, esate baterako, kiroldegi, ugertoki estali zein parke batez. Baina, orrelako egitasmoak aurrera eroan aal izateko, diru asko ez eze, proiektua errentagarri be biurtzeko jendea bear da, eta, emen neguan ez dago orrelakoak bideratzeko bear beste giza baliabiderik.

Dana dala, azken sasoiari igartzen gabiltz, geien bat, udan egondako jendea ona bizitzen etorri dana. Izan be, urriaren kontzeptua Estatu Batuetan aspaldi aldatu zan, ze leen jendeak urian bizi eta bertan egiten eban bear.

Gaur egun, ostera, jendeak unan egiten dau lan eta andik ogeita amar edo irurogei kilometrora bizi da, nasaitasuna eta bizi kalitatea gura dauzalako. Orduan, orrek Bakiora eta Uribe eskualde osora jende geiago ekarri eta zerbitzuok errentagarri biurtuko dira.

Leenengoz, beraz, orrelakoak abian ipinteko giza baliabide geiago bear dira, azpiegiturak ezin dira-ta egin, gero, utsik egon daitezkan.

Azken baten, gauza bat argi eta garbi euki bear da: sortzen dira gauzak ez dira kasualitateagaitik eratzen, ez eta politika zeatz bategaitik be. Izan be, ekonomiak, merkaturak eta kontsumoak zeazten dabe gauzarik geienak bideratzeko modua. Eta au guztia dinotsut, jendeak sarritan uste daualako udalak gura dauana egiteko aukera-edo daukala, eta ori ez da alan.

ZER: Gazteon ardura da Bakioko lurra eta, ondorioz, etxebizitzak zelan karutu diran ikustea. Zer egin leiteke gazteei urtenbideren bat eskaintzeko?

JB: Alakoetan, administrazioak babes ofizialeko etxebizitzak egiten dabilz parametro batzuk aintzat artuta: per-

ERRIAK

tsonaren egoera ekonomikoa, soldataren zenbatekoa, erriko izatea eta abar. Orretan, udalaren asmoa naiko garbia da: orrelako etxebizitzak egitea, erritarrei era guztietako aukerak zabaldu bear jakezalako.

Eta une onetan, Eusko Jaurlaritzagaz paratu gara artue-monetan eta bein arau subsidiarioak finkatu ostean, bertan zeaztuko da orrelako etxebizitzak egiteko lursaila.

ZER: Bakio, gaur egun, Bilbotik 20 minutura dago, orrek jende andana ekarriko dau erria?

JB: Jakina jendea etorriko dana. Ori orain dala urte batzuk ikusi dogu Areetan eta Algortan, asikeran, eta Berango, Sopela, Urduliz eta Plentzian geroago, ze ortxe trenan egon zanez gero, orrek aukera emoten eutsun Bilbotik joan-etorria egiteko, naiko modu merkean.

Ganera, gaur egunean, jende guztiak dauka kotxea eta onantz datorren autobidea konpontzen bada, jendea etorri egingo da. Ze Bilbon edo inguruan 30 milioi ordaindu bear badozuz 60 m.²-ko pisua erosteko eta ganera parkinga bear badozu, ba, zeure buruari zera dinotsozu: kontxo, interesgarriagoa da ori baino askoz ohea izango dan etxebizitza erostea Bakio lako erri baten, naiz eta bearrera bidean joan eta etorteko 30 edo 40 minutu bear izan.

Ganera, itsasoa, mendia, giro nasaia eta ona daukat, eta, gaur egun, uriaren aldean askoz gozoagoak dira alako erriak.

Orduan, pasatu leiteke Berango, Sopela eta Urdulizen pasatu dana, au da, jendea etorri egingo dala. Eta orreek etorrikeran, kiroldegiak, plazak edo bestelakoak egingo dira. Eta erria gero eta obeto egongo da. Eta gero eta jende geiago urreratuko da.

Orrelan, lo egiteko lekua biurtu leiteke, Mungian daborduko gertatu dan moduan. Urigintzan badago "koipe orban" deritxon kontzeptua, au da, jendea batetik bestera mugitzen doa, alkarren ondoko tokiak berarenganatuz. Eta zergaitik etorriko dira Bakiora? Ba, onagino ailegatuko dan autobidea egingo dabelako.

ZER: Azken aldion, Bakioko Udala arau subsidiarioak barriztetan dabil, zelan eragingo deutso orrek?

JB: Ba, egia esan, istoria apur bat ezagutu bearra dago. Orain dala 14 urte egindako arauak sano zorrotzak izan ziran, ze etxe bat egiteko bearrezkoa zan PERI (Plan Especial de Reforma Interior) burutzea, eta ori bideratzeko albo-ko etxe guztietako jaubeen baimena bear zan eta jende guztiaren artean ordaindu. Arautegi zorrotz orrek ezinezko biurtu dau etxebizitzak egitea.

Ura lotuta egon da urte askotan eta gorantz eta gorantz joan da. Ori dala eta, etxea egiteko gogoa dauken gero eta bertoko seme-alabek be bizi kalitatea bermatuko dauan etxe egokia gura dabe.

Jakina, 14 urtean ez da ezer be egin, orduan, arau subsidiarioek erdiguneko soloetan aalbideratzen badabe etxebizitzak egitea, naiko etxegintza andia izango da. Eta ori, alde batetik, normala da gauzak urte askotan egon diralako lotuta eta, ganera, Bilbotik ain paraje ez dagoalako Bakioko ezaugarriarik (itsasoa, mendia, ingurune ederra) daukan erri-rik.

Orrek guztiak aldaketa andia ekarriko deutso Bakiori, bertoko seme-alaba guztiak errian lotu eta Bilbotik zein inguruetatik jende dexente etorriko dalako biziten.

ZER: Zer egin bear Bakiok aurrera egin bai, baina, era berean, daukazan berezko ezaugarriei eusteko?

JB: Leenengo eta bein, esango neuke bakiotar guztiek lan egin bear dabela, bertokoak eurak eta, zelanbait esatearren, bertoko jaubeak diralako, au da, emengo sustraiak daukezanak. Orduan, lan egin bearko dabe bertoko nostasun eta izakerari eusteko eta ez kanpoko artu, ohea izan daitekela pentsatuz.

Nire eritxiz, bakiotarrek argi euki bear dabe zer dauken orreri eutsi aal izateko. Ze kultura bi batzen diranean, indartzen dan kultura nagusitu egiten da. Alan da ze, bertoko jendeak ez dau kanpora arririk bota bear, besteek egiten ez dabena bein eta barriz aitatzuz.

Orrelan, leenengoz, Bakioko jendeak sentitu bear dau erria eta izakera eurena dala, eta ori jagoteko aalegin andiak egitea bearrezkoa dala. Osterantzean, emendik urte ez da Bakio izango, ezpadaze Bilboko zati bat.

Dana dala, ori bakiotarren esku egongo da, eurek erabagi bearko dabe eta zer izan gura daben: Bilboko zati biurtu edo bilbotarrak bertokotu, erriko izakera eta nortasunaren barruan sartuz eta integratuz.

ZER: Zein neurritan lagundu aal deutso urigintzak Bakioko izakera eta natur inguruneari?

JB: Ba, urigintzak alderdi bi daukaz: soloetan etxebizitzak egiteko aukera, batetik, baina, era berean, orrek aukerak emon bearko dauz guztion lekuak konpondu eta apaintzeko. Argi euki bear da, beraz, urigintzak oinegitura barriak sortzeko erabilten dana, baina, aldi beratan, erriak konpontzeko aukera ezin ohea emoten dauana.

Urigintza, azken baten, orixe besterik ez da: errietatik lurak artu eta erriei leku edo gune barriak emoteko tresna. Orrelan, gaur egun, udal arautegi guztietan aukera biak jasoten dira.

Ori dala eta, ondo baino obeto kontrolatu bear da zer emoten dan eta zer artu, au da, emon bear da jendeak ez galtzeko baina, neurri berean, erriak be ez galtzeko. Ori, zoritxarrez, ez zan orain dala 30 urte gertatzen.

Izan be, lau etxegileri aukera emon jaken lurak artu eta etxebizitzak egiteko (Toloñon eta areatza inguruko gune orretan), baina eurek ez eutsoen erriari ezer be emon, urigintza aldetik oinegitura bakar bat be sortu ez zalako, ez plazarik, ez kalerik ez ezer be.

Onen bitartez esan gura dot sasoi aretan ez zala trukaketa-rik egon, gaur egun urigintzari esker ateratzen dan diruaren zati garrantzitsua errian inbertitu bear dalako. Alan, gure bearra da diru kopuru ori aalik eta andiena izatea lortzea aalegintzea, erria obetu eta bear lez apainduta egon daiten.

ZIDURI

BAKIOKO EUSKERA-6

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskera. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

- Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,
- zelan idatzi bear dan: "amagaina noa"
 - Bakion zelan esaten dan (amaiñe noa)"

-AGAINA/-AKAINE

Goiko atzizkiok, -AGANA/-AKANA "" oneen bardinantze-koak dira. Idazterakoan batzuk eta besteen artean alde andirik ez badago be, berba eginkera bai, ostera. Goikoak ez dira Bakion bakarrik erabilten, Bermeon, Fruizen,... be bai, baina guztiz berezkozat artu bear doguz, gure gureak diralako. Bakioko euskeran bakiotarrek eurrez erabilten dabez eurok, bein be uts egin edo bigarrenakaz naastatu barik. Atzizkion kasua deklinabideko ADLATIBOA deritxona da, bizidunena, atan be.

edo
onEGAINA (oneiñe) - orrEGAINA (orreñe) - aGAINA (areiñe) - oneEKAINA (oneekaiñe) - orreEKAINA (orreekaiñe) - areEKAINA (aiekaiñe)

edo
noGAINA? (noreiñe?) - nortzuEKAINA? (nortzuekaiñe?) - zeinEGAINA? (seiñeñe?) - zeintzuEKAINA? (seintzuekaiñe?) - nor edo noGAINA (nonoiñe) - batEGAINA (bateiñe) - batzuEKAINA (batzuekaiñe)...

BAKION

amaitu (amaitxu)
aalegindu (alegindxu)
aitatu (aitxetu)
alkartu (alkartu)
arteztu (artestu)

Beste leku batzuetan

bukatu, finitu
saiatu
aipatu
elkartu, batu
zuzendu

NOGAINA? (NOREIÑE?)

Mugatubakoa	Mugatu SN.	Mugatu PL.	Mugatu urkoa - PL.
alabaGAINA (alabaiñe)	alabEAGAINA (alabieiñe)	alabAKAINE (alabakaiñe)	alabOKAINE (alabokaiñe)
semeGAINA (semeiñe)	semeAGAINA (semeiñe)	semeAKAINE (semiekaiñe)	semeOKAINE (semiokaiñe)
zaldiGAINA (saldiñe)	zaldiAGAINA (saldidxeiñe)	zaldiAKAINE (saldidxekaiñe)	zaldiOKAINE (saldidxokaiñe)
oiloGAINA (oiloiñe)	oiloAGAINA (oilloaifie)	oiloAKAINE (oilloakaiñe)	oiloOKAINE (oillookaiñe)
medikuGAINA (medikuiñe)	medikuAGAINA (medikueiñe)	medikuAKAINE (medikuekaiñe)	medikuOKAINE (medikuokaiñe)
txakurrEGAINA (txakurreiñe)	txakurrAGAINA (txakurreiñe)	txakurrAKAINE (txakurrekaiñe)	txakurrOKAINE (txakurrekaiñe)

Bizidunen izenak be MUGATUBAKOAN deklinetan dira, barbarako:

MartaGAINA (Martaiñe) - BasiliaGAINA (Basilidxeiñe) - AneGAINA (Aneiñe) - MariGAINA (Mariñe) - EnekoGAINA (Enekoñe) - JosuGAINA (Josuiñe) - MirenEGAINA (Mireneiñe) - LuisEGAINA (Luiseiñe)... edo amaGAIÑE (amaiñe) - aitaGAINA (aitxeiñe) - izekoGAINA (isekoiñe) - osabaGAINA (osabaiñe) - anaiaGAINA (anaidxeiñe) - arrebaGAINA (

Beste batzuk:

niGAINA (nireiñe) - zuGAINA (sureiñe) - aGAINA (areiñe) - guGAINA (gureiñe) - zuEKAINA (suekaiñe) - areKAINA (aiekaiñe) - neuGAINA (neureiñe) - zeuGAINA (seureiñe) - beraGAINA (beraiñe) - geuGAINA (geureiñe) - zeuEKAINA (seuekaiñe) - eurAKAINE (eurekaiñe)

atara (atara)
autortu (autortu)
banandu (banandu)
batu (batu)
berba egin (berba egin)
bialdu (bialdu)
eroan (croan)
galazo (galason)
gura izan (gure ixen)
gurago izan (gurau ixen)
ebagi (ebai)
edegi (idi/iri)
eritxi (eritxi)
-ri eritxi (-ri eritxi)
euki (oki/okin)
-tan ibili (-tan ibilli)
igan/igon dot (idxen dot)
igarri (egarri)
imini/ipini (imiñi)

atera
aitortu
banatu
bildu
itz egin, mintzatu
bidali, igorri
eraman
debakatu, galerazi
nai izan
naiago izan
ebaki
ireki, zabaldu
deitu, izena euki
-ri iruditu, -ri begitandu, -ri iritzi
eduki
-tan ari izan, -tan jardun, -ri eragon
igo naiz
antzman, asmatu
jarri

NOAINGO GUDUKETEA - 1521

1512. urtean indarrez sartu eta artu eban Nafarroa osoa Gaztelako erregea zan Fernandok. Julio II.a Aita Santuak emondako guzurrezko buida batez baliatuta, Alba dukearen agintearen pean bialdu eban itzelezko gudarostea Nafarroa azpiratuteko.

Ibili be, aspaldian ebilen jan guran Leringo konde doilorrari lagundu bear utsalokoa. Nafarroako errege-erreginek, Katalina eta Joan, Biarnora egin bear eben iges. Euren lurraldea barrian irabazteko iru aalegin andi eginda be, ezin izan eben inoz a osorik atzera birreskuratu.

Orreotariko azken aalegina 1521. urtekoa izan zan. Areen seme eta oinordekoa zan Enrike II. Albretetokoa sartu zan gudaroste andi bategaz Nafarroa birreskuratuteko asmotan. Nafarroa Beerea eskuratu ostean, Iruñerantza jo eban. Baina, 1521eko bagilaren 30ean Noaingo zelaietan nafar eta espainiarren arteko izan zan burruka andian uts egin eben eta Enrike II.aren asmoak bertan beera itzita lotu ziran.

Asparroseko jaunaren agindupean egoan Nafarroako gudarostea. Asparrosek, gudari gitxi euki arren, ez eban laguntzinoa eldu artean itxaron eta, beste teko barik, ersasoari ekin eutson. Baina Gaztelako gudarostea askoz be indartsuagoa zan eta errez irabazi eutson Nafarroakoari.

An, Noaingo zelaietan, 6.000tik gora nafar abertzale lotu ziran ilda. Ori zala eta, Gaztelako erregeak Nafarroa osoa ostu eta jan aal izan eban.

Nafar abertzaleen erresistentzia, baina, Baztango Amairurko Gazteluan 1522ko garagarrilean amaitu zan. Amaiurren, Nafarroako azkenengo berreun bat zaldun zintzok eutsi eutsoen arerioari. Eurok, ezelangot laguntza artu barik, azkenean, amore emon bear izan eben eta Nafarroa osoa, Garaia eta Beerea, itzi eban eta Nafarroako erregea zan Enrike II.aren menpean lotu zan atzera.

Jazokera areek agoz gora iruli eta baldintzatuko eben Nafarroako gizarte eta euskerearen etorkizuna. Areek ondorio kultural, sozial, ekonomiko eta politikoak ekarriko ebezan. Euskal Estatuak, Nafarroa, independentzia gal-

du eban-eta. Etorkizun ankerraren edo baltzak an-or-emenka zabalduko ziran Erreinu zaarean zear, gaur arte.

Amairurko gazteluko jauna, Jatsuko jauna, Xabierreko Frantziskoren aita izan zan. Aitagaz batera, Frantziskoren anaiak be egon ziran bertan. Laukizko LAUAXETA olerkari andiak gudari abertzale areen omenez urrengo olerki sakon eta sarkorra egin eban il aurretik:

AMAIUR GAZTELU BALTZA

Amairur gaztelu baltz ori
-berreun gudari oso sumin-
zaintzen zaituen zaldun onek
Nafarra-aldez egin dabe zin.

Iskilu gorritz zenbat gazte
bildurbako menditar lerdin.
Eta orreek, Jatsu jaun orreek,
Xabierreko zaldun guren.

Ikurrin bat -kate ta lili-
dorre goitian zabal dago.
Bera salduko dauan semerik
mendi onetan ez da jaio.

Amairurko atezain orrek
zidar turutat oi u eik.
Baztan ibarran zenbat etsai,
arrotz bage ez dago mendirik!

Esiturik Amairur dauka
Mirandako konde espainiarrek.
Orreek bai burnizko janzkiak,
ta urrezko ezpata-sagarrek!

Berekin dator, bai berekin,
Leringo eta orren semea.
Txakur txarrek jango al abe,
erribako zaldun dongea.

Goiko aldetik asten dira
asten dira suaga otsez.
Orna kontretan zenbat zurgu
ta gezi zorrotzak airez!

Baina dorrean zabal dabil
ikurrin bat -kate ta lili-
nork zapaldu ete daikez
berreun gudari orok zoli?

Amairurko gaztelu baltza
-jausi jatzuz dorre goitiak-.
Baina arrotza, ez adi geldu,
nafar seme dira guztiak.

Arresi gorri, zubi ausi,
-zein gitxi diran zaldun orreek-.
Erio, samurño zakiez
aberrimin baitabilz eurek.

Mirandako konde gaizto orrek
jo eizuz zidar turutat.
Ikurrin bat -kate ta lili-
ez dau laztanduko aizeak.

Berreun gudari oro sumin
gaztelu pean dagoz ilik.
Ordutik ona -zenbt laino-,
Nafarroan ez da aberriik.

(Lauaxeta)
Iniaki MARTIARTU

BERBALAPIKOA

buida= Aita Santuaren parkazinoa edo baimena.
gudaroste= armada.
doilor= zital, anker, biozbako.
ines egin= anka egin, ospa egin. (Bakio-ko erara)
birreskuratu= galdutakoa atzera irabazi.
oinordeko= gurasoen ondorengoa.
bertan beera itzita lotu= pikutara joan.
zaldun= erregearen jauntxua.
areno= etsai.
amore emon= etsi, errenditu.
jazokera= gertaera.
baldintzatu= baldintza pean egon.
anker= biozbako, doilor.
oro= guztiz, erabat.
alde egin= -ren alde egin, defendatu.
iskilu= arma.
lerden= itxura oneko, dotore, txairo.
(gizonak)
guren= onen.
goiti: andi, garai.
turuta: tronpeta.
esitu= inguratu, setiatu.
ezpata sagar= ezpatearen kirtena edo eskutokia.
donge= txar, gaizto.
suaga= kainoi.
zurgu= egurrezko esku-eskilarea.
zoli= kemen, adore.
geldu= zurtz eginda lotu, arritu.
arresi= arizko ormea.
aberrimin= aberriaren alde.

ERRIGINTZAN

Urtaro argitsu onegaz batera udal agintaritzaren barria gogotsu asi da bearrean gure errian. Betebear asko eta era askotakoak daukez datozan lau urteotarako. Bakiotarrek, euron aldetik, itxaropen andia imini dabe agintari barriongan.

Urrengo lau urteotan erria aurrera eroan ez eze, egin diran gauzok ondo errotu eta sendotu bearra be badago-eta, berbarako, Erri Nortasuna. Bakiok, etorkizunean be, Bakiok izaten jarraitu daian.

Udatiarrek eurok be, aukerarik ezin ohea dauke Bakiok bizi-bizirik dauan Erri Nortasun orretaz gozatu eta jaubetu aal izateko. Orixe da, izan be, euren eskaini geinkioenen arteko pitxirik baliotsuena. Betoz guregaina, bada! Ondo be ondo esango deutsegu, orixe baietz!

BAGILEKO AUTESKUNDEAK BAKION

Joan dan bagileko 13an auteskundeak izan genduzan errian. Eurotan iru autu egin bear izan genduzan, au da: Udal, Batzar Nagusi eta Europarako autuak. Lortutako emoitok aldaketa txikiren bat edo batzuk ekarri baeuskuezan be, andi-andika, aldaketa nabarmenik ez zan egon. Esan bear be, autu egileak geiago izan dirala arteragoko auteskundeetan baino (57 autesle geiago), errian lagun geiago bizi da eta.

Amen, bada, emoitok:

UDALERAKO AUTESKUNDEAK

Autesleak	1.406	
Abstentzinoa	281	
Zuri-utsak	50	
EAJ	662	6 zinegotzi
EH	249	zinegotzi 2
EA	103	zinegotzi 1
PP	47	
PSOE	14	

BATZAR NAGUSIRAKO AUTESKUNDEAK

Autesleak	1.406
Abstentzinoa	283
Zuri-utsak	30
EAJ-EA	752
EH	239
PP	57
IU/EB	19
PSOE	18
PH	5
Plazandreak	2
ICV	1

EUROPARAKO AUTESKUNDEAK

Autesleak	1.406
Abstentzinoa	287
Zuri-utsak	29
EAJ-EA	740
EH	238
PP	55
PSOE	26
IU/EB	14
Berdeak-L.V.	7
PH	3
Berdeak-G.V.	3
BNG	2
PLN	1
FEMEK	1

UDAL BARRIA BAKION

Garagarriaren 3an, goizeko 12etan, azkenengo auteskundeetan aukeratutako ordezkari politikoek, udalkide barriek, artu eben euren lekua udalean. Udal batzordeak andik eta ila-betegarrenean osotu bearko dira.

Urrengo oneexek doguz, bada, agintari barriok: EAJren aldetik, Txomin Renteria, Kepa Uriarte, Floren Zabala, Jon Ormaza, Juan Mari Anitua eta Luis Aio; EHren aldetik, Begoña Makazaga eta Ibon Kanzio; EAren aldetik, Begoña Zubiri. Leenengo batzar orretan datozan lau urteotarako alkate izendatu eben Txomin Renteria.

Alkate izendatu barriak eskuzabaltasunez jokatuko dauala adierazo eutsen beste talde politiko biei. Erria aurrera eroateko danon alkarlana bearrezkotzat emon eban. Beraren esanetan, batez be, Lizarra-Garazi dalako itun ori iru alderdiok bultzatuten dabelako.

Beste taldekoen aldetik, ostera, ez zan egon ezelango erantzunik. Alkarlana eskaini eutsen besteei, alkarlana bearrezkoa da-eta erriko nortasunari eusteko. Alan beite!

DATOZAN INBERTSINORIK ANDIENAK ERRIAN

Aurtengo udal aurrekontuetan, Bakioko erreka nagusiaren [Ojaorta (udxorta)] bideratze bearrek dirutzarik andiena eginen dabe, 131 milioi atan be.

Era berean be, Bentalden lur azpiko aparkalekuak (78 guttira) egiteko 150 milioiko dirutza bideratu dau Udalak. Apar-kalekuen bearrak udearen ostean asiko dira eta 10 ilabeteren barruan amaituko dabez.

Aurtengo inbertsino plana 620 milioikoa da, aurrekontuaren %54a. Beste alde batetik, erabilera eta zerbitzu askotari-ko pelotaleku bat egitekotan ei dagoz udalean, onetarako oraindikarren dirutzarik aurrikusi ez badabe be.

GASA EKARTEKO ODIK LASTER

Propano gasa Bakiara ekarteko bearrezko diran odiak iminteko bearrak laster asiko dira. Orretarako biltokia eta gasa etxeetara bialduteko banatzailea Artzalden egongo dira.

BARRIAK

Gas biltoki bi izango dira, guztira 99m³-ko edukiera eukiko dabela. Oditeria bide nagusiaren ondoan, aren paraleloan, sartuko dabe lurrean.

Odi sare nagusia 3 Km-koa izango da, eta propano gasa zein gas naturala bananduteko balioko dau. Erritarrek zerbitzu orren ganean itaunak egin eta euki leikeezan zalantzak argitu daiezan, bulego bat zabalduko dabe errian.

Bakioko Udalak bearrak aalik arinen asi daiezan gura dau eta dana amaitu, 8 ilabeteren barruan amaitu bearke litzake, au da, datorren urteko udarako gas banatzea indarrean egoteko moduan.

IKURRIN URDINA GURE ARETZARAKO

Europako Batasunaren babes barik emon dira aurtongo udaldian aretza kalitatearen ikurrinak. Ego Euskal Erriko 11 aretzatan (Bizkaiko 9 eta Gipuzkoako 2) eskegi dira, euron artean Bakioko Areaga aretzean be bai. Aretzearen kalitate onaren (garbitasuna, sorospen zerbitzua, segurtasuna, ingurugiro baldintza egokiak) erakusgarri imini deuskue oial urdina.

Ori lortuteko, leenengo eta bein, udalek orretarako eskabi-dea egin bear dabe. Ikurrin urdina nori emotea, ostera, Espainiako Ingurugiro Ezkuntza eta Kontsumitzaileen Alkartek erabagi dau.

Alkarte ori Europako Federazioaren adar bat da, baina aurtun bera beratar ibili da ikurrin urdinak emoten, Bruselako erakundearen babes barik. 1987. urtetik ona leenengoz, ikurrinik ez banatutea erabagi dau aurtun Europako Batasunak. Antza danez, ekologistek egindako salaketak dirala eta. artu dau Europako Batasunak erabagi ori.

Egon be, osasun baldintza txarretan egon ei dira ikurrin urdina euki daben aretza batzuk eta ikurrin barik lotu diran beste batzuk, barriz, osasun baldintza onak euki dabez. Europako Batzordeak birrikusiko dau ikurrin urdina emoteko arautegia, aurki. Alan da ze, aurtengoz, orretan, udaldion etentxu bat egitea erabagi dau.

Alan eta guztiz be, Bakioko itsasoko uraren kalitatea neuruteko amabostaldi egiten diran azterketen emoitzak egoki-egokiak izan ei dira, ikurrin urdina bar-ian gure errira ekarteko.

Iniaki MARTIARTU

UDALAK 9 BEARGIN KONTRATATU DAUZ UDARAKO

Gauza jakina da udan Bakiok garrantzi turistiko andia eskuratu eta, orren ondorioz, biztanleen kopurua itzel anditzen dana. Ori guztia dala eta, udan sortzen diran aldi baterako bearrak beteteko asmoz, udalak urtean-urtean bideratzen dauz lanpostuak beteteko deialdiak.

Aurton, bada, udalak 5 udaltzain, 3 ondartzain eta Turismo Bulegorako beargin 1 kontratatu dauz leiaketa-oposizino bidez egindako prozedurari esker.

Udaltzaina izateko 5 lanpostuak beteteko prest egon diran 16 autagaietarik onakoxeak aukeratuak izan dira puntuazioaren urrenkeraren arabera: Gaizka Longarai, Andoni Ordorika, Nerea Kanalaetxebarria, Miren Begoñe Ispizua eta Gaizka Uriarte. Era berean, udalak 3 ondartzain lanpostuak beteteko 15 autagaietarik ondokoak aukeratu ebazan: Usue Mentxakatorre, Iñaki Eguskizaga eta Arkaitz Fernández. Turismo bulegorako aldi baterako plaza Aritz Ormaetxeari adjudikatu jakon.

TXERNOBILETIK BAKIOGINO.

1986ko ondamendi nuklearrak ukututako Txernobilgo umei aldi baterako arrera egiteko kanpaina martxan ipintearren ondorioz, Larrene baserriko Barrenetxea familia Sondikako aireportura bertaratu zan, bagilaren 26an, Irina Puchienskaya Ukrainiako umeai arrera egiteko asmoz.

Alan da ze, Irina gure artean izango da garagarril eta abuztuan, eta etorkizunari begira, berari ostera be arrera egiteko aukerarik balego, Bakioko familia onek leentasuna eukiko leuke beste autagai batzuen aldean. Izan be, bisitaldia leku berean egiteak egonkortasun andiagoa emongo leuskio gure bisitari gazte oneri.

BAKIOK, DABORDUKO, BADAUKA SOINULARIEN TALDEA

Taldea eratu zanetik urtebete igaro danean, Bakioko Soinularien Taldeko arduradunek asikerako proiektuari jarraipena emotea lortu dabe.

Gazte soinulariak prestatzeko astean-astean egindako bearrak aparte, azpimarratzekoak dira gure errian, gabonetako eta aratosteko jaiak dirala-eta, eskaini dabezan ekitaldiak. Urren-go ikasturtetarako (1999-2000), taldeak ainbat proiektu aurrekusi dauz, berbarako, erriko jaietarako emonaldia (2000) prestatzea eta "Trikitixa Egun"ean parte artzea, bai eta txapelketa batzuetara bertaratzeta be.

Taldea 11 kidek osotzen dabe: Nagore Garai, Miren Josu Goiartzun (irakaslea), Marian Sánchez, Esti Markaida, Aitor Garai, Iratxe Renteria, Indi Letelier, Akaitz Legarreta, Miren Alazne Iturain, Amets Jauregizar eta Etzoz Elgezabal.

ZUUR EGON, UDALA LAN POLTSA ETEN BARIK GAURKOTZEN DABIL ETA

Udalak azken orteotan lan poltsaren zerbitzua eskaini dau. bertan, bear barik dagozan gazteak sartu egin dira lanean aste-ko urratsak jorratzeko asmoz.

Lan poltsa onetan 150 pertsonak emon dabe izena orain arte (Uribe eskualdekoak zein inguruakoak), baina udala gaurkotu bearrean dago ailegatzen diran lan eskaintzeai erantzun egokia emon guran.

Ori dala eta, udal onek gazte bakiotarrengana jo gura dau, lan poltsa onetan sartzeko aukera ez daiela galdu gogorazoteko edo poltsan segitu gura daben ala ez egiaztatzeko.


LONGARAI, BESTE ZERBITZU BAT FRONTOIAREN INGURUAN

Daborduko, edegi egin da Longarai ostatetxea, Ostalaritza Laguntzailea izateko Ikastaroan esku artu daben 5 ikasleei esker. Udalak, INEMegaz bertatu lez, Longarai ipini dau martxan ikastaro orreri amaiera emoteko praktikaldi modura. Orre-ri esker, bada, udako ostalaritzako eskaintza anditu ez eze, Zubiaur auzoan artuemonetan paratzeko be beste lokal bat izango da. Urriaren 26ra arte Kepa Freirek beteko dauz Longarai kudeaketa zereginak.

Bagilaren 3an edegi zan taberna eta domekatik martitzen-era egoten da zabalik goizeko 11:00etatik aurrera.

ZIDURI

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Sagu txikiak bere zulo txura sartu gura dau. Lagundu mesedez!

zazpi ezbardintasunak aurkitu!



-zu'lnup p ztluq izzulaq)lui11am-e l -'8
 ama --L
 •uuaz4u olutal wq nariz - 9
 •uu1azNuInz ~uq Tlaq -S
 Nualniaq -t
 o~utx~1~ ~uq uiou •£
 -unupaq ona.uni - }
 •uuTauupu ama luq 1.re -j

:uuadluzv




Lotu zenbakiak eta marrazkitxu bat lortuko dozu.



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa